



José Ignacio Angulo Pardo

IKASLAN BIZKAI Ako presidentea
Presidente de IKASLAN BIZKAI A

AURKEZPENA

Azken urteotan, Euskal Herriko Lanbide Heziketak aldaketa eta erronka askori egin behar izan dio aurre; une honetan, punta-puntako aukera da. Eragile eta pertsona askok, beren apustua eginez eta asmo ona nagusi izanik, aldaketa garrantzitsu horretan lagundu dute eta Ikaslanetik parte-hartzaile aktiboak izan gara.

Aldatzen ari den gizartea da, guztia egoera berrietara ari da egokitzen. LOE eta horren garapena onartu berri dira eta zailtasunak planteatuko dituen erronka berriak dira, baina guztiok proposamenak eta bizipenak eskaintzen baldin baditugu, aukera ona izango da datozen urteetan gure hezkuntza sistema egokia izan dadin, gizartearen beraren eskaeren arabera.

Horren ildotik, hain dinamikoa den sozietatearekin, gaitutako enplegua enpresen lehiakortasunerako erabakigarria izango den horretan, kalitateko Lanbide Heziketarekin aurrera egiteak izan beharko luke lehen helburua, etengabeko bilakaeran, berrikuntzan eta teknologian aldaketak erraz ezarriz, eta ahal den neurrian, aldaketa horiei aurre hartuz.

Euskal Herrian asko dugu jokoan, Lanbide Heziketako prestakuntza maila egokia behar duten gero eta enpresa gehiago dago. Hori dela eta, enpresek eta Lanbide Heziketako zentroek elkarrekin egin behar dugu lan oraingo eta etorkizuneko erronkak gaiztatzeko. Horren ildotik, Administrazioak eta eragile sozialek, akordioen bitartez, Lanbide Heziketa onena eskaini behar dute, hori baita pertsonentzako garapen pertsonal eta profesionalerako giltzarria eta enpresa jardueraren garapenerako behar-beharrezkoa.

Lanbide Heziketaren aldeko apustua ez zen lortu ahal izango beharrezko ekarpen ekonomikorik gabe; era berean, zentroetako langileen egonkortasuna ere beharrezkoa eta presazkoa da, baita horiek kudeatzerakoan autonomia handiagoa ere.

Urte hauetan guztietan, Euskal Herriko ikastetxeak izan dira hiru azpi-sistemen integrazioan adibiderik onenak. Egunez egun erantzuna eman zaien zailtasunak ere izan diren arren, zentroak gazteen eta helduen erreferente garrantzitsuak dira; baita langabetuentzat eta langileentzat ere.

Giza baliabide, irakasle eta irakasleak ez diren langile bikainei esker, ekipamendu onekin batera, Hasierako Prestakuntzan, Lanerako Prestakuntzan eta Etengabeko Prestakuntzan zentroak dira adibiderik egokienak. Nahasteko beldurrik gabe esan daiteke hori: baliabi-deak ahalik eta gehien aprobetxatzea, emaitza ezin hobea lortuz.

Zentroek joan den otsailean sinatutako Enplegurako Adostasunaren testuinguruan eta horren garapenean ekiteko har dezaketen jarre-rak larritzen gaitu. Gure ustez, katalogo modularra ezartzearekin eta Etengabeko Trebakuntza banatzearekin, nabarmen aurreratu da trebakuntzaren kalitatea hobetzeari dagokionez, eta balantzea oso baikorra da. Era berean, Lanerako Prestakuntzan zentroek Enplegu Sailaren bidez egindako lana estimu handitan dago; izan ere, trebakuntzaren bitartez barneratu ahal izan diren Euskadiko langabetuentzat, prestakuntzan hobetu ahal izatea oso baliagarria izan da.

Horren ildotik, Lanbide Heziketako zentroak hiru azpi-sistemak banatzeko baldintzarik onenetan daude. Esperientzia zabala dute, giza baliabidea eta baliabide material ezin hobek... kalitatea bermatzen dute bai trebakuntza, bai hori kudeatzerakoan.

Ikaslanen uste dugu horrela izan behar duela, eta gure laguntza eta babesa eskaintzen dizugu horretarako.

PRESENTACIÓN

Son muchos los cambios y retos que en los últimos años va afrontando la Formación Profesional del País Vasco, siendo en este momento una opción de primera. Muchas han sido las entidades y personas que con su apuesta y a través de su buen hacer han contribuido a este importantísimo cambio, y del que desde Ikaulan hemos sido partícipes activos.

Estamos en una sociedad cambiante, en la que todo debe adecuarse a las nuevas situaciones que van surgiendo. La reciente aprobación de la LOE y su desarrollo, son un nuevo reto que sin duda planteará dificultades, pero que si todos aportamos propuestas y experiencias, seguro que será una buena oportunidad para que nuestro sistema educativo para los próximos años sea el adecuado, de acuerdo a las demandas de la propia sociedad.

En este marco, con una sociedad tan dinámica, en la que el empleo cualificado va a ser determinante para la competitividad de las empresas, debe ser objetivo prioritario seguir avanzando con una Formación Profesional de calidad, en constante evolución, implantando con rapidez los cambios en innovación y en tecnología, y si es posible adelantándose a esos cambios.

En el País Vasco nos jugamos mucho, las empresas cada día tienen más puestos de trabajo que requieren un nivel de cualificación que corresponde a la Formación Profesional. Es por ello que empresas y Centros de Formación Profesional debemos colaborar y trabajar juntos para superar los retos presentes y futuros. Para ello, la Administración y los diferentes agentes sociales a través de los acuerdos deberán favorecer la mejor Formación Profesional, que es elemento clave para el desarrollo personal y profesional de las personas e imprescindible para el desarrollo de la actividad empresarial.

La apuesta por la Formación Profesional no se entendería sin las suficientes dotaciones económicas, al igual que es imprescindible y urgente la estabilidad del personal de los Centros, así como mayor la autonomía de gestión en los mismos.

En todos estos años los Centros del País Vasco han sido el mejor ejemplo en la integración de los tres subsistemas. No exento de dificultades a las que día a día se han ido dando respuesta, los Centros son un importantísimo referente para jóvenes y mayores, así como para desempleados y trabajadores.

Los excelentes recursos humanos, profesorado y personal no docente, junto a los buenos equipamientos han hecho que los Centros sean el mejor ejemplo en la Formación Inicial, en la Ocupacional y en la Continua. Esto se puede denominar sin miedo a equivocarse: aprovechar los recursos al máximo obteniendo un excelente resultado.

Nos preocupa el papel que puedan ejercer los Centros en el marco del Acuerdo para el Empleo firmado en febrero pasado y su desarrollo. Consideramos que con la implantación del catálogo modular y la impartición de la Formación Continua, se ha experimentado un gran avance en cuanto a la mejora de la calidad de la formación y el balance es muy positivo. Igualmente está muy bien valorada la importante labor desarrollada por los Centros en la Formación Ocupacional principalmente a través del Departamento de Empleo, pues de gran valía ha sido la mejora de la cualificación para todos aquellos desempleados y desempleadas de Euskadi que a través de la formación han podido insertarse.

En todo este contexto, los Centros de Formación Profesional están en las mejores condiciones para la impartición de los tres subsistemas. Su amplia experiencia, junto a sus importantísimos recursos humanos y materiales, son una garantía de calidad tanto en la formación, como en la gestión de ésta.

Desde Ikaulan entendemos que así debe ser y para ello brindamos nuestra colaboración y apoyo.